


VALENTZIARA LAGUNTZERA


Oihane Sebastianek eta Alaitz Sepulvedak Valentziara eraman dute Durangon baturiko laguntza. Hamabost tona elikagai eta produktu batu dituzte Pitxi tabernan / 2-3

Euskara hutsezko ekitaldiak gutxitu egin dira sanfaustoetan

Berbarok jaietako ekitaldietako hizkuntza aztertu du / 4



Natxo Gonzalez entrenatzaileak hartu du Amorebieta futbol taldea zulotik ateratzeko ardura / 20



Abadiñoako hileroko azokak urtea beteko du domeka honetan / 11

HOME SCHMIDT HOME
SUKALDEAK ETA ETXeko ALTZARIAK

Azaroaren 4tik 30era

UDAZKENEKO ESKAINTZAK

ZURE
ALTZARIAK

www.homedesign.schmidt

Abadiño

Elkartasun uholdea eskualdetik Valentziara

Denboraleak aurrekaririk bako hondamendia eragin du Valentziako (Herralde Katalanak) gune metropolitarrako hainbat hiritan. Horren aurrean, Durangaldeko herritarrek elkartasunez beteriko egitasmoak antolatu dituzte kaltetuei laguntzeko

Ekaitz Herrera ELKARTASUNA

Edonor makurrarazteko modukoak dira Valentzia aldetik Euskal Herrira egun eta gau helden dabilzan irudi eta datuak. Joan zen urriaren 29an, aurrekaririk bako denborale batek neurribako uholdea eragin zuen Valentziako erkidegoko Turia ibaiaren arroan, eta erauntsi hark maldan behera topaturiko herri eta hiri guztiak harapatu zituen ibilguan zehar. Tartean, Valentzia hiriburuaren metropoliko hiri ugari. Orain, hondamendia gertatu eta aste-bete pasatxora, biktimen eta hildakoen kopurua gora doa etenik barik. Espainiako gobernuak egun eguerdian emandako datuen arabera, 219 dira oraingoz hildakoak, eta 89 desagertu aktiboak (azaroak 6). Horrez gainera, uholdeak kalte material izugarriak eragin ditu hirietako azpiegituretan, lotu-neetan, errepideetan, saneamenduan, ur hoditerian eta



Suhiltzaileak, Valentziara bidean. BFA

argindar sarean, eta ez atzera ez aurrera utzi ditu milaka herritar. Espainiako gobernuak hondamendi eremu izendatu ditu kalteturiko eskualdeak.

Dena dela, irudiak edonor makurrarazteko modukoak diren

arren, herritarrek elkartasun uholde batez erantzun diote denboralearen erauntsiari. Txarrenari onena ateratzeko borondate osoagaz, Durangaldeko herritarrek arin batean antolatu dira Valentziako herritarrek babesteko. Laguntza eskaintzera bertaratu dira asko, eta oinarrizko elikagaiak eta materiala bidali dituzte hemendik hara beste askok. Suhiltzaileak ura ponpatzeko makinekin joan dira Valentziara, eta hara joateko aukerarik izan ez duten herritarrek dohaintzak egiteko moduak topatu dituzte norbanakoek zein instituzioek antolaturiko bilketa solidarioetan.

Mallabitik boluntario talde bat joango da gaur Valentziara beharrezan duten lekuetan laguntzera eta bildu dituzten produktuak eta janaria bertan entregatzera. Bestalde, Berriko, Abadiño eta Iurretako udalek gomazko botak bidali dituzte Valentziara.

dohaintzan emateko deialdia egin zuten.

Aitor Aparicio izan da egitasmoaren antolatzaileetarikoa. Astelehenean azaldu zuten, goiz osoan zehar ibili zirenean, herritarren, instituzioen eta enpresen babesagaz. Zornotzako Udalak Zelaietako frontoia utzi zien, eta baita furgoneta ere. DS Smith Tecnicarton enpresak kaxak eman zizkien, eta Aludium enpresa arduratu zen logistika lanak kudeatzeaz. Lehengo trailerra astelehenean bertan irten zen Valentziara.

Bestalde, Zornotzako Udalak "ikaragarri eskertu ditu zornotzarren elkartasuna eta eskuzabaltasuna Valentziak eta valentziarrek une honetan bizi duten krisi egoeraren aurrean". Ahal duten neurrian laguntzera deitu dituzte herritarrek.

Zornotzarrek beteriko trailerra Valentziara heldu da jada

Zornotzako Aludium enpresak trailer bat eramanean du Valentzian duen enpresara, handik logistika antolatzeko

Jone Guenetxea ZORNOTZA

Aste honen hasieran egin dute dena, di-da batean. Sare sozialetan deialdia egin eta zornotzarrek berehala erantzun dute. Valentziara eramateko produktuen bilketak erantzun ezin hobeak izan du. Astelehen goizean, hamaika pertsona inguru Zelaieta zentroan atonduriko bilketa gunera bertaratu ziren boluntario. Hasierako deialdian, janaria, ura eta esnea eskatu zituzten. Gero, kandelak, pilak, linternak, maskarak, eskularruak eta uretarako oinetakoak



Zelaietako elkartasun bilketa.

Aurrekaririk bako hondamendia



Ibilgailuak lupetz artean hondatuta. AUXKIN PEREZ DE SAN ROMAN

Denboralearen indarra. Uholdeak parean harrapatutako dena eramanean zuten beragaz. Ibilgailuak bata bestearen gainean pilatuta geratu ziren, eta hirietako errepide eta kale asko trabatuta.



Kaltetuek merkataritza-guneetan igaro behar izan dituzte gauak. GORKA IMAZ

Zain. Denboralea igaro eta gero, herritar askok merkataritza-guneetan pasatu behar izan zuten gaua. Uholdeak Valentzian harrapatu zuen Gorka Imaz otxandiarra. "Zer zen hura! 'The Walking Dead' telesaila ematen zuen!", adierazi zion Imazek ANBOTOri.



Ura kanporatzeko hodiak eraikin batean. AUXKIN PEREZ DE SAN ROMAN

Azpiegiturek. Lokatz-uholdeak egoera bereziki larriak sortu ditu eraikinen azpiko solairuetan, garajeetan eta sotoetan. Suhiltzaileak ura ponpatzeko lanetan dabilta azpialdeak hustu eta bertan biktimari ote dagoen ikusteko.

"Jendearen erantzunagaz oso eskertuta gaude"

OIHANE SEBASTIAN ETA ALAITZ SEPULVEDA EKIMEN SOLIDARIOA

Oihane Sebastianek eta Alaitz Sepulvedak Valentziara eraman dute Durangon baturiko laguntza. Pitxi tabernan 15 tona elikagai eta produktu batu dituzte

Jone Guenetxea DURANGO

Alaitz Sepulveda durangarrak bere etxea legez sentitzen du Valentzia. Inguru hartan bizitako hondamendia ezagutu zuenean, berehala ekin zion lanari. Pitxi tabernan laguntzarako puntua zabaldu zuen, dena Valentziara eramateko. Ez zuen imajinatu ere egiten durangarren erantzuna hainbestera izango zenik. Kamioia alokatu eta Oihane Sebastian orozkoaragaz Valentziara eraman dute baturiko dena. Hainbat tona produktu bere garajejan geratu da, garraio bideren bat topatu bitartean.

Zelan sortu zen ekimena martxan ipintzeko asmoa?

Alaitz Sepulveda: Erizaintza ikasketak egin nituen Valentzian, eta hainbat lagun dut han. Nire etxea balitz legez sentitzen dut. Gertaturikoa ikusita, zezor egin behar nuela pentsatu nuen. Pitxi tabernan janaria eta produktuak batzeko leku bat egokitzea bururatu zitzaidan.

Erantzun hau espero zenuen?

A.S.: Ez, itzela izan da. Zapatutik astelehenera jendearen joan-etorria etenakoa izan da, produktuak ekartzen. Botikak, janaria, umeentzako materiala, ura, fardelak.... Enpresa batek hainbat ontzi ekarri digu, esate



Oihane Sebastian eta Alaitz Sepulveda.

baterako. Hasieran gauza gutxi batuko nuela pentsatuta, autobusean maleta batean eramatea pentsatu nuen. Gero, harrera ikusita, agian furgoneta bat beharko nuela ere bururatu zitzaidan, eta begira, kamioia alokatu behar izan dugu. Gertatzen diren produktuak garraiatzeko, 15 tonako trailerra hartzea pentsatzen gabilta.

Gauza guztiak kamioian sartu ahal izan dituzue?

A.S.: Ez, 15 bat tona garajejan

ditut, beste bidaiak batean eramateko. Pentsatu egin behar dut zelan egin. Alokatu dugun kamioiak gehieneko pisua hartu du eta ezin izan dugu dena eraman.

Oihane, zelan batu zara proiektura?

Oihane Sebastian: Alaitzen laguna naiz eta laguntzera etorri naiz. Oso sentsazio onagaz etorri gara Valentziara. Denerik lortu dugu valentziarrei laguntzeko eta pozik gaude. Jendaren erantzunagaz oso eskertuta gaude.

"Herritarren lan boluntarioa eta elkartasuna txalogarriak dira"

AUXKIN PEREZ DE SAN ROMAN SUHILTZAILEA

Iurretako suhiltzaileen parkeko kidea Valentzian izan da

Ekaitz Herrera SUHILTZAILEAK

Auxkin Perez de San Roman Iurretako suhiltzaileen parkeko kidea da. Valentziako herritarrei laguntzeko boluntario bila hasi zirenean ez zuen dardarik izan eta izena eman zuen. Hainbat egunetako egonaldia egin du han, egun eta gau, lanean.

Zelakoak izan dira Valentzian egindako egunak?

Guztiz kaltetuta dagoen gune batean egin dugu egonaldia, hiriburuaren kanpoaldeko Masanassa herrian. Traktoreak jo eta ke ibili dira hango lupetz guztia ateratzen eta piloak eginen. Suhiltzaileak, poliziak eta militarrek ikusi ditugu, eta baita honen guztiaren alderdirik politena ere, herritarrek, jende boluntarioa, borondate osoz lanean. Bestalde, igarri dugunez valentziarrei egonezina sortu die auziaren kudeaketa politikoak.

Zein izan da zure zeregin nagusia?

Eraikinetatik ura ateratzea. Izan ere, instalazio guztiak lupetz trabatuta daude. Kanean hogeit bat zentimetroko lupetz geruza dago, baina hoditeria goitik behera dago trabatuta. Eta hori konpontzen kamioi ugari egon arren, frustrazioz beteriko zeregina da. Izan ere, leku batetik ura kentzerakoan, askotan, gura barik, beste eremu batzuk bete ditzakezu urez.

Suhiltzaileek egoera gogorretan esku hartzen duzue. Valentziakoa zelakoa da?



Perez de San Roman eta Javi Martinez.

Telebistako irudiak ikusita ohitzen gabiltzala dirudi. Thailandiakoa ere, adibidez, telebistatik ikusi genuen. Baina gero errealitatea zure begiekin ikusten duzunean eta hemen gertaturiko txikizioa zelakoa den ikusten duzunean, izugarriko hondamendia ikusten duzu.

Egoera gogor honetatik posible da bizipen positiborik ateratzea?

Honeguz guztiagaz zerikusirik ez duen jendea boluntario lanetan ikustea oso polita da. Jendearen elkartasuna txalotzeko modukoa da. Hemen ezaunik ez daukaten herritarrek dira asko, hemen bizi ez direnak, soldata justifikatu beharrik ez dutenak. Adibidez, gazte kuadrilla asko etorri da laguntzera. Lupeztuta daude goraino, baina ilusioz lan egiten dute. Hori oso polita da.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#SAL DUE NAK

1€ **BIHOTZ-MUSEO BAT** Leire Vargas Eilar

2€ **HETERO** Uxue Alberdi Susa

3€ **BERBELITZEN HIZTEGIA** Angel Lertxundi Albeniz

4€ **LILURAREN KONTRA** Martin Aizebe Txalaparta

Postadarik gabeko gutunak
Xake Produzioak

Azaroak 10, igandea
19:00etan Antzerkia

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021 - sanagustin@durango.eus

San Agustín KULTUR GINEA



Jendetza Durangoko udal plazan, Jai Batzordearen txupinazoan. UNAI OLASO

Euskara hutsezko ekintza kopurua gutxitu egin da


Jai Batzordeak eta Txosna Batzordeak San Fausto jaietan programatu dituzten ekitaldien hizkuntza aztertu du Berbarok. Elkarteak ondorioztatu duenez, ele bitan eskaini diren ekintzek gora egin dute, euskara hutsezko proposamenen kaltetan

Ekaitz Herrera DURANGO
2022ko datuekin alderatuta, "euskara hutsezko eskaintzak behera egin du, ele bitan egin den eskaintzaren mesedetan. Gaztelaniazko eskaintzak %1 egin du gora, eta euskarazkoa %10 jaitsi da". Berbaro elkarteak ondorio nagusi hori atera du joan berri diren jaietako ekitaldiak neurtu eta gero. Gainera, euskara hutsezko ekitaldien beherakada jaiak antolatzeaz arduratzen diren organo nagusi bien programazioan igarri dute, bai Jai Batzordearen eskaintzan eta baita Txosna Batzordearenean ere. Elkarteak jaietako ehun ekintza behatu ditu, programatu diren ekintza guztien %78,


eta datu hauek zehaztu: "Ehun ekintzotatik 43 izan dira euskaraz, 33 ele bitan eta 24 erdaraz". Musikari dagokionez, euskarazko ekitaldiak izan dira nagusi, emanaldien %42 euskara hutsean izan dira eta. Umeentzako ekintzei dagokienez, euskarazko eta erdarazko eskaintza parekoa izan da: ekitaldien %48 euskaraz izan da, eta %43 erdaraz. Antzerki ikuskizunen alorrean, ostera, euskara koska bat beherago dago. Hamar obratatik sei erdaraz izan dira, eta lau euskaraz. Neurketako daturik okerrera barrakek utzi dute beste behin ere. Ipini duten musikan ez da ezer ere entzun euskaraz. %100 izan da erdara, eta datu

hori ez da aldatu Berbarok egin dako neurketetan. Euskara elkarteak Durangoko jaietako ekitaldiak neurtzen dituen hirugarren aldia da. Azterketa 2019an egin zuten lehengoan, eta orain urte bi egin zuten bigarrena, 2022an. Urte hartan euskararen gorakada "nabarmena" izan zela ondorioztatu zuen Berbarok. Euskara elkarteak beharrezkoa deritza San Fausto jaietan programatzen diren ekintzen hizkuntzari erreparatzea, "aurrera begira zer hobetu behar den" zehazteko. Era berean, jaien antolaketan parte hartzen duten eragileekin elkarlanean aritzeko prest agertu da.


Hizkuntza bilakaera jaietan



Jai Batzordea. Gaztelania hutsean eskainitako egitasmoek behera egin dute, baina baita euskara hutsean antolaturikoek ere. Jai Batzordeak antolaturiko ekintzetan elebitasunak gora egin du.



Txosna Batzordea. Eskaintza elebiduna nabarmen igo da txosnetan, musikan eta musikari loturiko kalejiretan bereziki. Eta horrek euskara hutsezko ekintzak gutxitu ditu. Edozelan ere, txosnek sanfaustoak euskalduntzeko egiten duten "ekarpen erraldoia" aipatu du Berbarok.



Umeentzako ekintzak. Datuek zapore gazi-goza utzi dute. 2019ko joera atzean utzi da Berbaroren esanetan, eta 2022koa mantendu. Dena dela, umeei ekintzetan erdara oso presente dutela azpimarratu du elkarteak. Garrantzitsua deritza alor hau lantzeari.

Euskaraldia prestatzen hasi dira

Durangoko Euskaraldia prestatzeko batzordeak lehenengo batzarra egin zuen, eguaztenean, 2025eko edizioa prestatzeko. Aurrerantzean, prozesuagaz zelan jarraitu hausnartuko dute. Hurrengo Euskaraldia 2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo da, *Elkar mugituz egingo dugu* lelopean. Egitasmoaren laugarren edizioa izango da, eta udaberrian egingo den lehenengoa.



2022ko Euskaraldian parte hartu zuten zenbait durangar. DURANGOKO EUSKARALDIA

Pantailen erabilera arduratsuaren bidean

ZEOS programa hasi dute Otxandion, ume eta nerabeek pantailekin eta telefono mugikorrek duten erabileran eragiteko; azaroan lau formakuntza saio egingo dituzte

A. Basauri OTXANDIO

Haur eta nerabeen artean pantailekin eta telefono mugikorren erabilera arduratsua sustatu guran, Otxandio ZEOS programara batu da. Teknologia berrien erabilera egokia sustatzea helburu duen sarearen aterkipean sorturiko Altxa Burua platafor-

mak, Mainondo Herri Eskolak, Guraso Elkartek eta udalak elkarlanean ekin diote programari herrian, eta, azaroaren 12an hasita, familiei zuzenduriko informazio tailerrak egingo dituzte. Kultur etxean izango dira, azaroaren 12an, 13an, 20an eta 21ean. Saio guztiak 18:30ean hasiko dira.

Altxa Burua plataformako ki-deek adierazi dutenez, "familien arteko saretzea lortzea ere bada helburua, ume eta nerabeengan pantailen eta telefono mugikorren erabilera ez arduratsua zor ditzakeen arriskuez ohartarazteko eta komunitate babesle bat osatzeko". Eskolako ikasle eta irakasleentzat saio bereziak antolatuko dituzte ZEOS programaren barruan.

Familiei zuzenduriko saioak

Ume eta nerabeen familiei zuzenduriko saioak Maitane Ormazabal psikologoak eta Altxa Burua Mugimenduko kidea den Telmo Lazkanok gidatuko dituzte. Lazkanok mugikorren

erabilerak ume eta nerabeengan duen eragina aztertu du. Eki-menaren bultzatzaileek informazio tailerretan parte hartzea deitu dute. "Ume eta nerabeak erdigunearan ipini eta errealitate osasungarriago bat eraikitze" aukera zabaldu dela nabarmendu dute sustatzaileek.

Saioak

Azaroak 12

- Mugikorraren auziaren formakuntza integrala.

Azaroak 13

- Osasun mentalean barrena

Azaroak 20

- Sare sozialen arriskua eta erabilera

Azaroak 21

- Nerabezaroan barrena: beldurrak, balioak, autoestimua eta identitate eraikieraren garrantzia



Ume bat mugikorreraz.

Durangaldeko hamabi ekoizle Ermuko San Martin azokan

Zapatuen egingo dute azoka, azaroak 9. Baserriko produktuak eta animazio ugari egongo dira udalerrian

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Ermuko herritar askorentzat urteko egunik bereziena izango da zapatu honetakoa. Azaroaren 9an, San Martin eguneko azokaren beste edizio bat egingo dute, hogeita hamalagarrena. Azoka 11:00etan hasiko da eta herriko erdiguneko kaleak baserriarren postuekin, askotariko ekitaldiekin eta festazaleekin beteko dira. Baserriarren azokan 40 ekoizleek parte hartuko dute, eta eurentariko hamabi Durangaldekoak izango dira. Honako produktu hauek eskuratu ahal



lazgo edizioko postu bat. EUSKAL BIRUSA

izango dira, besteak beste: fruta, ortuariak, ogia, ezti, gazta, sagardoa, txakolina, gozogintza, marmelada, garagardoa eta ahatekia. Horrez gainera, hamahiru artisau egongo dira euren lanak saltzen: bitxiak, eskuz egindako arropa, motxilak, xaboia, kandelak eta bestelakoak. Bestalde, saskigileak, egurra lantzen duten artisauak eta beiragileak ere egongo dira.

Euskara ardatz

San Martin eguneko azoka Ermuko Euskal Birusa elkarteak antolatzen du, 1990etik, ermuarren artean euskararen erabilera sustatzeko helburuz. Elkartean 40 bat herritar daude, hainbat batzordetan antolatuta. Azoka egunari dagokionez, 200 euskaltzale boluntario aritzen dira lanean.

Jazz doinuekin hasiko dute, gaur, Iurretako Musikaldia

A.B. IURRETA

RS Basque Faktor taldeak hasiko du, gaur, Iurretako Musikaldiko kultur egitaraua. Ruben Salvador tronpetista buru duen taldeak *Equanimity* diskoa aurkeztuko du, Ibarretxe kultur etxean. Musikenen sorturiko jazz taldearen kontzertua 19:00etan hasiko da. Musikaldiko bigarren kontzertua Moon Fields Trio taldeak emango du, azaroaren 15ean. Talde donostiarrek film ospetsuenetako abestietan zeharreko bidaia eskainiko du, *Zinema Paradise* emanaldiagaz. Irati Bilbaoren kontzertuak borobilduko du Musikaldia *Bloom* lana aurkeztuta, azaroaren 22an.

Animalien babeserako legeari ekarpenak egiteko aukera Garain

E.H. GARAI

Garaiko Udala etxeko animalien babesari, ongizateari eta edukitze arduratsuari buruzko ordenantza berria prestatzen dabil. Orain epe bat zabaldu du herritarrek araudi berriari ekarpenak egin ahal izateko aukera izan dezaten. Besteak beste, egon daitezkeen arauzko eta ez-arauzko alternatibak planteatzeko, araudi buruzko iritzia bidaltzeko, eta konpondu beharreko arazoak identifikatzeko aukera izango dute. Ekarpentak azaroaren 12ra arte egin daitezke, Garaiko Udalaren web orriko *Kontsulta Publikoa* atalean. Behin proposamenak jasota, udala araudiaren aurreproiektua egiten hasiko da.




TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA

AZAROAK 12 **Zelaieta Zentroa 17:30**
(Familia zein profesionalentzat)

"Pertsonaren garapenerako emozioak lantzen"

17:30-17:35 Harrera

17:35-18:30 Hitzaldi nagusia- **Amaia Ayerra**

18:30-19:00 Mahai ingurua

- Miren Lopez de Arregi (Emaize)
- Mirene Peña (Andramari Zornotzako Ikastola)
- Amaia Ayerra (Ikastolen Elkartea)

MODERATZAILEA: Nagore Etxebarri

IZEN-EMATEA ETA INFORMAZIO GEHIAGO:

www.andramarizornotzakoikastola.eus

Etixerik bako bost herritar zenbatu dituzte Durangon

Urriaren 23tik 24rako gauean, bizitegi-bazterketa egoeran dauden pertsonen zenbaketa egin zuten, EAEko 30 udalerritan. Horien artean, Durangon. Etixerik bako 1.541 pertsona kontatu zituzten Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Durangon, bost

Aitziber Basauri DURANGO

Kalean edo ostatu-baliabideetan gaua igarotzen duten pertsonak identifikatzea, eskualdeko gizarte-bazterketaren arazoari buruzko diagnostiko eguneratua eskaintzeko. Helburu horregaz, bizitegi-bazterketa egoeran dauden pertsonen zenbaketa egin zuten urriaren 23tik 24rako gauean. Euskal Autonomia Erkidegoko 30 udalerritan egin zuten zenbaketa; tartean, Durangon. Guztira, etxerik bako 1.541 pertsona antzeman zituzten Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Bizkaian zenbatu zituzten gehien, 895 pertsona. Gipuzkoan 524 lagun daude etxerik bako egoeran, eta 122 Araban. Durangon bost lagun identifikatu zituzten egoera horretan, udal ardura-dunek jakinarazi dutenez. Ikerketan 783 pertsonak parte hartu dute: 631 boluntariok eta 152 profesionalek. Durangon 16 pertsonak parte hartu zuten gaueko zenbaketan: 13 emakumek



Durangoko Andra Mari kalea.

eta 3 gizonak. Durangoko udal ordezkariak azaldu dutenez, azterlanak etxerik bako pertsona errealtatearen erradiografia egiteko eta kolektibo kaltebera horri arreta eta laguntza emateko politika publikoak

hobetzeko aukera ematen du. Durangoko Udalak "etxegabetsuna desagerrarazteko eta pertsona guztiak etxebizitza duina izan dezaten bermatzeko politikak" bultzatzen jarraituko duela adierazi du.

Etxebizitzaren eta ondasunen zerga %13 igoko da Durangon

Gobernu taldeak dioenez, ordenantza berriak "zerbitzu publikoak bermatuko" ditu. Oposizioa kritikoa agertu da

A.B. / E.H. DURANGO

Durangoko Udalak 2025ari begirako zergak eta tasak arautu ditu, "zerga-bilketa orekatzeko, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko eta udalerriko sektorerik ahulenei laguntza eskaintzeko" helburuz. Aldaketarik nabarmenenak honako hauek izango dira: Ondasunen eta Higiezinaren Gaineko Zerga %13 igoko da etxebizitza arruntetan, eta %11 etxebizitza gehituan; industriari loturiko zergak %8 egingo du gora. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergak, merkataritzari ezarritakoak eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergak, ostera, bere horretan jarraituko dute, eta dauden moduan geratuko dira datorren urtean. Azkenik, zaborren gaineko tasa %30 igoko da, hondakinen bilketari loturiko kostuak Europak agindutako araudira moldatu ahal izateko. Bestalde, ezarri dituzten hobarien artean, familia ugarietzakoak eta baliabide ekonomiko gutxien dituzten herritarrei begirakoak daude. Ordenantza fiskal berria joan zen asteke osoko bilkuran onartu zuten, udalbatza osatzen duten talde politikoen arteko eztabaida betean.

Josune Escota zinegotziak (EAJ) ordenantza berria defendatu zuen, arauak "egungo beharrezkoak eta erronketa-eragokitzeko ahalegina islatzen" duelako. Jesica Ruiz alkateordeak (PSE-EE) aitortu zuenez, "gustukoa ez den igoera" onartu dute, baina, bere esanetan, igoera "beharrezkoa" da "zerbitzu publikoak modu egokian mantentzeko". Oposizioa ki-deek, ostera, oso bestelako interpretazioa egin zuten. Jorge Varela iritiz (Herriaren Eskubidea), zerga sistema berriagaz "herritarrek ordaindu beharko dituzte merkataritza-gune handiek eta bankuek ordaindu beharrekoak". Iker Urkizak (EH Bildu) Ondasunen eta Higiezinaren Zergak planteaturiko "oreka eza" kritikatu zuen: "Bankuek ordaindu beharrekoak substantzialki jaitzi da. Familiak izango dira ordaintzen jarraituko dutenak", adierazi zuen. PPko Carlos Garcia abstenitu egin zen. Mireia Elkoroiribe alkateak kalitatezko botoa erabili behar izan zuten bozketako boto kontrajarrien berdinketa apurtzeko eta ordenantza fiskalak onartzeko.

Etxea alokatzeko eskatzaile kopurua %25 hazi da Durangon

E.H. DURANGO

Durangoko EH Bilduk jakinarazi duenez, Etxebiden 1.412 lagun daude izena emanda udalerrian etxebizitza bat alokairuan hartzeko asmoz. Euskal Etxebizitza Behatokiak lau hilabete behin argitaratzen ditu datuok, eta eskatzaileen kopurua %25 igo da azken urtean. Era berean, Durangon 1.405 etxebizitza hutsik daudela gogoratu du koalizioak: "Etxebizitza hutsak alokairura bideratzeko neurriak behar dira Durangon. Alokairu eskaintza publikoa eta eskuragarria handitzea da lehentasuna. Durangon ia ezinezkoa da alokairuan etxe bat aurkitzea, eta dauden apurrek oso prezio handia dute".

Eskola-antsietatea eta mendekotasunak berbagai Zaldibarren

E.H. ZALDIBAR

Datorren eguaztenean, azaroak 13, umeen eskola-antsietatea eta adikzioen prebentzioa lantzeko berbaldia egongo da familientzat. Amaia Sarrionandiak emango du berbaldia, eta aletuko dituen gaien artean adin txikiko batzuek eskolara joateari uko egitearen atzean dauden arazoak eta horrek umeen garapenean izan ditzakeen eragin emozional, sozial eta akademikoa izango dira. Berbaldia Zaldibarko eskolan izango da, 18:00etatik 19:30era. Bertaratu gura dutenek eskolan eman dezakete izena. Egitasmoa Zaldibarko eskolak eta Mankomunitateak antolatu dute.

Zergak eta tasek, orokorrean, %2,5 egingo dute gora Zaldibarren

Zabor bilketari loturiko tasa izango da salbuespena. Azken hau %15 igoko da, Europako araudia betetzeko

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko udalbatzak 2025eko zergak eta tasak eguneratu ditu. Ordenantza fiskal berria joan zen asteke osoko bilkuran onartu zuten, aho batez. "Gastuek gora egin dutela ikusita, eta Udalkutxatik jasotzen dugun diru sarrerak behera egingo duela aurreikusita, 2025eko zergak eguneratzea erabaki dugu", azaldu zuen Eneritz Azpitarte alkateak. Orokorrean, zergak eta tasek %2,5 egingo dute gora. Zerga bat baino ez da kopuru horretatik salbuespena egongo:



Zaldibarko kaleak.

zaborraren bilketari eta kudeaketari loturikoa. Hori %15 igo da, zerga Europako araudi berrira moldatzen hasteko. "Izan ere, Europako legediaren arabera, hondakinen bilketa- eta kudeaketa-kostuak zaborra biltzeko zerbitzuaren gaineko tasagaz estali beharko lirarteke; bide batez, sorturiko hondakinen araberako ordainketa sistemak ezarrita", gogoratu du alkateak. Helburu hori lortzeko bidean, Zaldibarko Udalak igoera progresibo bat egingo du urtero. "Neurri horretara heltzeko, zerga hori %35 igo beharko genuke kolpetik. Baina igoera handia denez, hiru urteko igoera progresiboa planifikatu dugu. Tasa %15 igoko da 2025ean, beste %15 2026an, eta falta dena 2027an", argitu du Eneritz Azpitarte alkateak.

OSASUN GIDA

 **Podologia**
PSE: 214/06



Podinara Urreta Jainaga
OINEN ZAINITZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK
Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Optometria**
PSE: 162/13


keinu
OPTOMETRIA ZENTROA
NARRA ZABALA AUZMENDI 11587 kol. IV
• JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
• IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEKUA • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
• SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARLUNEN KONTROLA • UKOPEN LENTEAK
• ORTO-KETA MIOPIAREN KONTROLA
Arkat 3 - 48240 Berriz - Tel.: 946 225 099
www.keinuoportmetriazentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22


pröktós.clinic
Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua
Mikeldi Kalea, 13, 48200 Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktos.clinic

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13


ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia
Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Solo pertsonalizatuak dira, talde txikietan.
Trañabarren 13, 4. blokea beheko eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16


pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia
Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13


clinicadental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxeberría
ODONTOLOGIA OROKORRA - INPLANTOLOGIA - KIRURGIA - ORTODONTZIA OHIKOA (DAMONO ETA IKUSEZINA) - ODONTOPIEDIATRIA - PADI - HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO ESKANERRA (TERO ETA CBCT)
(Muruetatorre, 2C blokea, beheko - 48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià
HOMEOPATIA • NATUROPATIA OSASUN INTEGRALA
Umeak - Helduak - Nagusiak
Ordua hartzeko:
946 204 218
Txanporta Plaza, beheko - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



 **Psikologia**


gure
Zure bidelagun
Haur, nerabe eta helduentzat
• Bikoitz-arazoak, arazoak eta estresak, depresioak, estres eta ikasketen arazoak, amaierako gaiturrak, familiar-arazoak, pertsona-arazoak, esperimentu kognitiboak, orpimena, hilkuntza, arazoak kognitiboak, elkarburu-portutara, diskalkulia eta besteak.
623 173 181 - 613 038 933
Andra mari 16 ID Durango

 **Odontologia**
PSE: 26/22


viteri
HORTZ-KLINIKA
Klinika berria Herriko Plaza Durango
DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.
Dokumentuak
Astelehenetik ostirara: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Larunegia: itzazkoan bakarrik
944 14 80 36 | 626 18 30 30
Astelehenetik ostirara: 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

Indarkeria matxistaz hausnartzeko ekitaldiak

Zornotzako Udalak ekitaldi sorta bat antolatu du azaroaren 25eko Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren harira; zapatuan, 'Emakumeak, gorputzak eta lurraldeak' topaketak egingo dituzte musika eskola zaharrean, 10:00etatik 14:00etara

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Zornotzako Udalak egitarau zabal antolatu du Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Lehenengo ekitaldia zapatuan bertan egingo dute, azaroak 9. 'Emakumeak, gorputzak eta lurraldeak' topaketak egingo dituzte musika eskola zaharrean, Cristina Quijera Rodalen gidaritzapean. "Zorritzarrez, genero indarkeria eguneroko errealitatea izaten jarraitzen du emakume askorentzat. Denon erantzukizuna da horri aurre egitea, eta udalak egunero lan egiten du gizarte berdinzaleago eta seguruago bat eraikitzeko", azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Alicia Hernandez zinegotziak ere gizartearen aktibazioa nabarmendu du. "Azaroaren 13an *O Corno* filma emango dugu; zinemaren bitartez hausnarketa sustatu gura dugu, ikusleentzat elkarriketa espazioak sortuta", adierazi zuen Hernandezek.



Jon Artabe, Ainhoa Salterain eta Alicia Hernandez.

Bestalde, Jon Artabe zinegotziak erantzukizun kolektiboari eman dio garrantzia. "Gizarte osoaren erronka da eta erakundeek gure ardura dugu horretan", esan zuen. Azaroaren 25ean, udalak adierazpen instituzionala egingo du.

Amaitzeko, Saharaz hegoaldeko herrialdeetako neska eta nerabeei hilekoak eta higiene arazoek eragiten dizkieten arazoak erakusteko, erakusketa bat egongo da Zelaieta Zentroan, azaroaren 18tik 25era.



Andra Mari ikastolako gurasoen abesbatza.

Andra Mari ikastolako abesbatzaren urtemuga eta jardunaldi pedagogikoak

Azarorako hainbat hitzordu antolatu ditu Zornotzako ikastolak, tartean, Kike Amorrizen berbaldia

A. M. ZORNOTZA

Andra Mari ikastolako gurasoen abesbatzak jai berezia antolatu du hiru hamarkadako ibilbidea ospatzeko. Azaroaren 15ean izango da emanaldi berezia, ikastolako aretoan, 19:30ean. Urte hauetan zehar bidean ezagutu dituzten kideetarikoz batzuen konpainia ere izango dute emanaldian. "Oso ondo konpontzen gara denok, eta euren partetik detaile polita da gure jaira etortzea", azaldu dute abesbatzakoek. Horrela, Brioletak, Zornoza, Abes-kimu eta Xuxurlariak abesbatzek parte hartuko dute eki-

taldian, Zornotzako otxoteagaz eta bandagaz batera.

Jardunaldi pedagogikoak

Andra Mari ikastolak bere lehenengo jardunaldi pedagogikoak antolatu ditu. Ikastolen elkarrekin Amaia Ayerrak *Pertsonen garapenerako emozioak lantzen* berbaldia emango du azaroaren 12an (17:30). Ondoren, mahai-ingurua egingo dute. Bestalde, azaroaren 20an, Kike Amorrizenek *Hiztun kontziente, konpetente eta koherenteak helburu* izenburua duen berbaldia emango du (17:30).

Ehun urtean itxita egon eta gero, 'Monjen kantoia' zabalik

Elorrioko Goieta eta Elizburu kaleen arteko gunea zabaldu dute, ehun urte baino gehiagoan itxita egon ostean



'Monjen kantoia'.

A. M. ELORRIO

Ehun urte baino gehiagoan itxita egon eta gero, Elorrioko Goieta eta Elizburu kaleen arteko gunea herriarrentzat zabaldu dute. Elorrioko Udalak proiektuaren garrantzia azpimarratu gura izan du. "Ehun urte baino gehiagoan itxita egon den espazio publiko hau berriro zabaltzea garrantzitsua da Elorrioko Udalarentzat. Horretarako, beharrezko lan guztiak egin dira: arrapala, eskailera paraleloa, berdeguneak eta erabilera ludikoko zurezko egitura". Horrez gainera, neguan zuhaitz batzuk landatuko dituztela aurreratu du udalak. Kalea izendatzeko, Elorrioko toponimia kontsultatu dutela azaldu dute. Lanak maiatzean hasi zituzten eta "uste baino gehiago" iraun dute.

Berrizen ekitaldi sorta antolatu dute azaroaren 25erako

Zapatuan autodefentsa tailerra eta antzerkia egongo dira; mobilizaziora deitu dute azaroaren 25erako

A. M. BERRIZ

Azaroaren 25eko Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna dela eta, ekitaldi sorta antolatu dute Berrizen. Zapatuan, Safo eskolak emango duen autodefentsa tailerraren lehenengo saioa egingo dute, 10:00etatik 14:00etara bitartean; bigarren saioa azaroaren 16an egingo dute. Azaroaren 9ko arratsaldean, *Menina. Soy una puta obra de Velazquez* bakarrizketa egongo da ikusgai kultur etxean. Tragikomedia honetan, bere gorputzagaitik eskola jazarpena jasaten duen gaztearen

azalean sartzen da Nuqui Fernandez aktorea; emanaldia 19:00etan izango da.

Datozen asteburuetan, *Onin eta antzerkiaren misterioa* antzerkia, June Fernandezegaz eta Miren Amurizagaz solasaldia (azaroak 21), eta Ibil Bedi taldearen kontzertua (azaroak 23) egongo dira, besteak beste. Egitaraua borobiltzeko, Gure Izarrak, Berrizko Emakume Migratuak eta Azeri Gorriak elkarteek azaroaren 25eko mobilizaziora deitu dute; Berrizko Udala ere batu da deialdira.

**Dagoeneko
salgai!**
PREZIOA
7€

Intereseko gaiak

Durungaldeko erraketistak,
Anpuerotarrak, C.D.Elorriok 100 urte,
desagertutako Lebarioko burdinola,
Zaldibarko Okildo kobazuloa gerra
zibilean ezkutaleku, Andra Mariko elizpea
Durangoko bihotza, Nestor Basterretxea
Durungaldean, Jose Luis Lizundiari
elkarrizketa, Karrika antzerki taldeak
25 urte.

Egileak

Estibalitz González, Igor Basterretxea,
Imanol Tabera, Eva Díez, Gaizka Zabarte,
Jose Angel Orobio-Urrutia, Oier Bizkarra,
Arantza Arrazola, Markel Onaindia,
Jon Irazabal, Fran Iruarizaga,
Izaskun Ellakuriaga, Garazi Arrizabalaga,
Txelu Angoitia.

Saltokiak

Abadiño Petlte eta Zelaletako estankoa.

Arrazola Amillena.

Berriz Etxebarria estankoa.

Durango Marpa, Gozotxori, Hitz, Arteka,
Urrike, Etxebarria, Ikerfer eta Museoa.


Elorrio Txokolat.

Ermua Maribel eta Xiripot liburu dendak.

Iurreta Iurretakopi.

Zaldibar Imendia.

Durangoko Azokan abenduaren 5etik 8ra.



www.gerediaga.eus



Anbotokideen txokoa


AZAROKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.



Errigoren eskutik Euskal Herriko produktuen otzara.



Hotel Balneario Areatzan gau bat, logela bikoitza, gosaria eta zirkuitu termala bi lagunentzat.

Okm:
batzen gaituen distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



Andasto dantza taldeak saioa egingo du On Martin egunean.

On Martin eguna ospatuko dute Atxondon, askotariko ekintzekin

Gaur arratsaldean zehar familientzako tailerrak, talo-jana eta dantza saioa egongo dira Apatako plazan

J.D. ATXONDO

Urtero legez, On Martin eguna ospatuko dute gaur Atxondon, herriko hainbat elkarte eta eragile batzen dituen Atxondo Kultura Mahaiaren, Andasto Dantza Taldearen, Atxondoko Talogileen eta Atxondoko Udalaren arteko lankidetzari eskerrak.

Ospakizuna Apatako plazan izango da, gaur arratsaldean zehar. Atxondoko ludotekaren eta herriko hainbat familiaren artean, umeentzako eta nagusientzako tailerrak antolatu dituzte 16:30erako. Iaz ere eragile biek elkarlanean antolatu

zuten ekimena On Martin egunean. Besteak beste, bitxigintza tailerra egongo da eta bertan kolore eta osagai guztietako eskumuturrekoak eta lepokoak egiten ikasiko dute elkarregaz.

Taloak eta dantzak

Tailerrak amaitu eta gero, 18:00etan, Atxondoko talogileek prestaturiko taloak dastatzeko aukera egongo da plazan. Jan-edanaren ondoren, ospakizunak aurrera jarraituko du eta 19:00etan Andasto dantza taldearen saioa izango da bertaraten direnen gozagarri.

Goa!zen telesailaren denboraldi berriko kapitulua Mañarian ikusgai

Azaroaren 17an denboraldi berriko lehenengo kapituluaren aurrestreinaldia egingo dute liburutegi zaharrean

J.D. MAÑARIA

Goa!zen telesailak laster hasiko du bere hamaikagarren denboraldia ETB1en. Baina Mañarian ez dute estreinaldiaren zain egon beharko, aurretik ikusteko aukera izango dutelako bertan. Azaroaren 17an, 18:00etan, lehenengo kapituluaren aurrestreinaldia egingo dute liburutegi zaharrean. Denboraldi hasiera lagun giroan ikusteko aukera egongo da.

Goa!zen gazteen artean arrakasta handia duen telesail musikatua da. Fikzio honek udale-

ku batean gazte talde euskaldun baten ibilerak ditu ardatz. Filma 2008an sortu zuten eta zinema aretoetan estreinatu zuten. Ondoren, 2009an, EITBn estreinatu zuten. Film honen arrakastaren ondorioz, ETBk Goa!zen telesaila sortu zuen 2009an, eta pelikula pertsonaiarik gehienek parte hartu zuten bertan. Ondoren, 2016an, pertsonaia berriak sartu ziren telesailean, eta hurrezkeror urtero eman dute ETB1en. ETBk haur eta gazteentzako sortu duen Makusi plataforman ere ikusi daiteke telesaia.

'Bizkarsoro' filma eta solasaldia Atxondon

Filma eman eta gero, Izaskun Urkijo arte zuzendariak berbaldia emango du

J.D. ATXONDO

Azaroaren 17ko domekan *Bizkarsoro* filma ikusteko aukera egongo da Apatamonasterion. Eskolako erabilera anitzeko gelan emango dute, 19:00etan. Filma Ipar Euskal Herriko fikziozko herri batean kokatuta dago, XX. mendean, eta euskarak eta euskaldunek jasandako errepresioa du hizpide.

Emanaldiaren ondoren, solasaldi bat izango da filmeko arte zuzendaria den Izaskun Urkijogaz (Gasteiz, 1978). Besteak beste, pelikulako alderdi estetikoaren eta bisualaren gainean berba egingo dute.

Urkijok esperientzia zabala du arte zuzendaritzan. *Bizkarsoro* filmearen aurretik, *Errementari*, *Nora* eta *Ane* pelikuletako erabaki artistikoetako arduraduna izan zen, eta *20.000 especies de abejas* eta *Sobre todo de noche* pelikuletan ere lan egin du.

Aurrekontuen inguruko herri bilera egingo dute Izurtzan

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak herri batzarrera deitu ditu herritarrak datorren urteko aurrekontuei buruz berba egiteko. Batzarra azaroaren 21eko eguen arratsaldean egingo dute, udaletxeko udalbatzar aretoan. Ordu zehatza aurrerago zehaztuko dute. Batzarrean, 2025eko aurrekontuetarako zer asmo duten azalduko dute eta herritarren ekarpenak eta iritzia ere jasoko dituzte.

Horregaz batera, aurtengo aurrekontuek emandakoa zehaztuko dute. Iazko herri batzarretik irtendako egitasmoak zertan diren azalduko dute, besteak beste.



Ezkerretetik hasita, Hegoi Escudero, Itziar Larrinaga eta Aitor Urien.

"Jendea erosketak egitera dator Abadiñoko Azokara"

Herriko ekoizle eta artisau batzuen ekimenez, Abadiñon azoka egiten dute hileko bigarren domeketan. Orain urtebete hasi ziren ekimen honegatz, eta 2024an zehar hainbat pauso eman dute; esaterako, elkarte bat ere sortu dute, udalagaz elkarlanean jarraitzeko

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Besapean ogia, eta poltsan gazta, ortuariak, ezta zein herriko artisauek egindako produktuak; horixe ikusten da Zelaietan hileko bigarren domeketan. Urtebetetik hona jai giroa izaten da nagusi Txanporta inguruan. Abadiñoko azokara joatea herriar askoren hileroko ohitura bihurtu da. Orain urtebete, azoka hau "herria pizteko" modu bat izan zitekeela esan zioten azokaren sortzaileek ANBOTORI, "auzoa biziberritzeko era bat" izan zitekeela. Eta horrela izan da orain arte. Hilean birritan, ekoizle eta artisauek euren produkturik onenak eskaintzen dizkiete bertaratzen direnei, eta Txanporta ingurua kolorez jantzen dute, bide batez. Antolatzaileek azaldu dutenez, apurka-apurka jendeak hileroko ohituratzat hartu du Abadiñoko azokara joatea.

Orain urtebetera arte, Zelaie-ta inguruan domeka batean jendea erosketak poltsagaz ikustea ia ezinezkoa zen, ogia eros-

teko aukerarik ere ez zegoen eta. Egoera horri soluzio bat emateko asmoz, herriko ekoizle batzuei zeozer egin behar zela okurritu zitzaion eta domeka honetan urtea beteko da Abadiñon lehenengoz azoka egin zutenetik. "Nik neuk argi nuen horrelako azoka batek erantzun ona izango zuela Abadiñon, eta horrela da. Plaza bete egiten da eta jendea oso gustura ibiltzen da bertan", esan du Aitor Urien artzain eta gaztagileak. "Balazioa oso positiboa da. Lehenengo ediziotik jendearen erantzuna bikaina izan da. Hasiera-hasieratik oso giro ona sortu da parte hartzen dugun ekoizleon eta herriarren artean. Esker oneko mezu asko jaso dugu eta gu ere oso eskertuta gaude",

"PLAZA BETE EGITEN DA ETA JENDEA OSO GUSTURA IBILTZEN DA ABADIÑO KO AZOKAN"

gaineratu du Hegoi Escudero eztigileak. "Azoka batean jendea poltsagaz ikustea da garrantzitsuena, alegere ikustea; eta jendea erosketak egitera etortzen da Abadiñoko azokara. Horrek poza ematen du", gehitu du Urienek. Azken hileetako ohiturari jarraituta, domeka honetan ere egongo da azoka. Gainera, hile honetakoa berezia izango da. Alde batetik bertako ekoizleak egongo dira, baina baita artisau gonbidatuak ere. Adibidez, Sartagudako piperrak bertan erreko dituzte eta Amillenako kideek jakitoki bat prestatuko dute ekoizleen produktuekin. Gerbas Kantuko kideek eta Busturiako Kantu Kantariko lagunek azoka girotuko dute. Gainera, azoka egunerako motorrak berotzeko, talde bietako kideek entsegua egongo dute Zelaietako kaleetan gaur arratsaldean. "Herriarrei bertaratzeko deia egiten diegu, bai gaur eta bai domekan ere, giro paregabea egongo da eta", gaineratu du Itziar Larrinaga sortzaileak.

Ortu publikoak 2025eko udaberrirako martxan egotea gura dute

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak Tornosoloko landa eremuko ortu publikoek erabilera arautzeko ordenantza onartu berri du. Udaletik jakinarazi dutenez, ortuak 2025eko udaberrirako martxan egotea aurreikusten dute; guztira, 50 metro karratuko 66 lurzati egongo dira abadiñarren eskura.

Eremuaren esleipena egiterako orduan, irizpide sozialak kontuan hartuko dituzte, beharrezan handiena duten herriarrek errazago eskuratu ditzaten lurzatiak. Jasangarritasun eta genero ikuspegia ere txertatuko dute, eta eremuen banaketa lau taldetan egingo dute. Lehenengo taldea (%25) gizarte babesa behar duten kolektiboek osatuko dute; bigarrena (%7,5) udal intereseko elkartek; hirugarrena (%25) 65 urtetik gorako pertsonak; laugarren taldean (%42,5) edozein pertsona sartu daiteke eta zozketa bidez aukeratu dituzte.

Mallabiko idi proba txapelketa jokatu dute asteburuan

M.Z. MALLABIA

Azaroaren 8tik 11ra bitartean Mallabiko XXXV. Idi Proba Txapelketa jokatu da. Hiru egunetan jokatu da: gaur barikua, bihar zapatua, eta astelehenean. Jardunaldi guztiak Mallabiko udal probalekuan izango dira eta 21:00etan hasiko dira. Hamaika idi pare arituko dira guztira. Lehenengo jardunaldia gaur izango da, azaroak 8, eta honako idi pareak lehiatuko dira: Zornotza Anaiak, Arane Jatetxea, Zumeltxu eta Soarte.

Bigarren jardunaldia zapatuan izango da, azaroaren 9an. Egundorretan, lau idi pare lehiatu beharrean, hiru lehiatuko dira: Billabaso, Kamiñoko eta Eloorrieta.

Hirugarren eta azken saioa azaroaren 11n izango da, datorren astelehenean. Egundorretan ere hiru idi pare lehiatuko dira: Billabaso, Kamiñoko eta Eloorrieta.

BERRIZKO
ZIKLO KROS
SARI NAGUSIA

AZAROAK 17
Berrizburun

| | |
|-------------------------------------|--------------|
| Master 40/50/60 | 10:00 |
| Kadete Neskek eta mutilak | 11:00 |
| Junior Neskek eta mutilak | 12:00 |
| Open Neskek | 13:00 |
| Master 30 | 13:00 |
| Open Mutilak | 14:00 |
| Sari banaketa | |

Logos: Dela, dinamika, Taes, ALPMA, Roger Griz, anboto, k, Noelkar, Berriz, 6.

Pedro Miguel Etxenikeren hausnarketa saioa Durangon

Zientzialaria San Agustinen izango da hilaren 15ean, 'Naturaren sekretua' dokumentala aurkezten

Ekaitz Herrera DURANGO

Pedro Miguel Etxenike zientzialari prestigiotsua Durangoko San Agustin Kulturgunean izango da hilaren 15ean, bere bizi-zari eta zientziari loturiko go-goetak partekatzen. Jardunal-

dia 18:30ean hasiko da, *Naturaren sekretua* dokumentalaren emanaldiagaz. Ikus-entzunezkoa Jose Antonio Perez Ledok zuzendu du eta kontakizunean zehar Etxenikek zientziaren inguruan egindako hausnarke-

tak jaso ditu, zientzia zer den eta zertan datzan azalduta. Dokumentalak 55 minutuko iraupena du. Behin emanaldia amaituta, solasaldia egongo da Etxenikegaz beragaz. Jone Guenetxea ANBOTOk zuzendariak gidatuko du solasaldia, ikus-entzunezkoan agerturiko ideiak berbagai hartuta.

Etxenikeren hausnarketa saioa Bizenta Mogel Bibliotekak antolatu du, *Zientziaren Ertzetik* berbaldi zientifikoen zikloaren barruan.



Pedro Miguel Etxenike. ECHENIQUE.DIPC



Politikaren dekadentzia

Gero eta informazio gehiago jasotzen dugu baina ezer argirik ez; eztabaida antzuak, zarata eta deskalifikazioak dira gure garaia-aren soinu banda. Honen ondorioz, gero eta handiagoa da politikarekiko dugun atxikimendu eza, espektakuluaz eta entretenimenduaz gain ez duelako ezer ematen. Argi dago beste eredu bat beharrezkoa dela eta Durangon badugu gaitasuna hori garatzeko.

Aro aldaketa batean murgilduta gaude eta erronka handiak ditugu parez parez, bai mundu mailan eta baita Durangon ere. Orain arteko ereduaren agorpena nabaria da eta oraindik ez gara gai izan eredu berri bat eraikitzeko. Honetarako denon ekarpena ezinbestekoa izango da.

Azaroaren 22an Norabide bat Durangori izeneko dokumentua aurkeztuko dugu. Lan honek ez ditu erantzun guztiak baina norabide bat proposatzen du, elkarlanean egin beharreko bide batentzako norabide bat. Durango bizigarria izan dadin, denontzat.

Hauteskundeetako lehiatik kanpo, aurkezpen honen helburua eztabaida publiko zintzo bati hasiera ematea da; beraz, herritar guztiak gaude gonbidatuta. Ez izan zalantzarik eta etorri azaroaren 22an 18:00etan San Agustin Kulturgunean egingo dugun aurkezpenera.

Etorkizun duinik izango bada, denon artean izango delako.

DURANGALDEA ASTEON

Musika eskolako teilatuko lanak, martxan

DURANGO Durangoko Udala Bartolome Ertzilla musika eskolako teilatua berritzen hasi da. Iparragirre Eraikuntzak enpresak egingo ditu lanak, eta zortzi hilabete ditu horretarako. Teilatuko zurezko egitura goitik behera berriztea, sabaia aldatzea eta LED teknologiadun argiztapen sistema ipintzea dute aurreikusita.



Alfredo Baeschlin kaleko etxe bat bota dute

ABADIÑO Zelaieta auzoko Alfredo Baeschlin kaleko etxe bat bota dute asteon, urte luzez estankoa egon zen eraikina. Azken hileotan etxea hutsik egon den arren, denbora luzez okupatuta egon da. 2021ean, esaterako, berau polemika iturri izan zen; Desokupa enpresa etxe okupatua jendez husteratzen joan zen eta tentsio oneak izan ziren han bizi zirenak irtenaraztera joandako enpresako ki-deen eta bertara joan ziren hainbat herritarren artean.



ARGAZKIJABEAXXXXXX

Pedrosa sailburua Zaldibarko eskolan izan da

ZALDIBAR Urteak dira Zaldibarko eskolan bizikidetzeta plana indarrean sartu zutela. Programan, ikasleek, irakasleek, jantokiko ardura-dunek, garbitzaileek, gurasoek eta Zaldibarko Udalak esku hartzen dute, elkarbizitza positiboa bermatzeko helburuz. Bada, asteon, Eusko Jaurlaritzako Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburua bizikidetzeta taldeko ikasleekin batu da lantaldearen lana gertutik eza-gutzeko.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretzi Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

2025

Durangaldeko egutegia

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

3€

Abendua

ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA
Ora: 16 urtera arte

8 eta 1. LETURU MATRIKULA
URTE OSAN ZABALIK
ETAGITU BASTOLAK

anboto
Komunikabideak

anboto

@anbotokomunikabideak

anboto.org

OHIKO SALTOKIETAN SALGAI

ABADIÑO

Petite eta Abadiñoeko estankoa

ATXONDO

Kiosko Atxondo eta Itziar taberna

BERRIZ

Egun on okindegia

DURANGO

Etxebarria prentsa denda
eta Hitz liburudenda

ELORRIO

Txokolat

GARAI

Herriko taberna

IURRETA

Iurreta kopistegia

IZURTZA

Herriko taberna

MAÑARIA

Herriko taberna Talka

MALLABIA

Herriko taberna

OTXANDIO

Korostondo janari denda

ZALDIBAR

Imendia prentsa denda

ZORNOTZA

Ayerdia prentsa denda




SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | 7 | | 6 | | | | |
| 6 | | | | 9 | 4 | | | |
| | 5 | 9 | | | | | | 8 |
| 8 | | 3 | | 2 | | | 1 | |
| | | 1 | 6 | 8 | 3 | 4 | | |
| | 2 | 5 | 1 | 7 | | 8 | | |
| | | 2 | | | | | | 9 |
| 1 | 9 | | | 3 | | 7 | | 5 |
| 7 | | 6 | | 5 | 2 | | | 4 |



GURUTZEGRAMA

Gurutzegrama bete.



ITZALAK

Zein itzal dagokio irudi bakoitzari?



"Nobedadea izan da musika horrela idaztea"

MUSIKA Igor Uruburu 'Lepotxo' taldera batzeagaz batera, Ainke musika taldea laukote modura egonkortu da; '10 gezur eta 3 tiro' lana kaleratu dute oraintsu, euren ibilbideko bigarrena; Imanol Jareño berriztarra arduratu da grabatzeaz eta nahasteaz

Aritz Maldonado DURANGO

Ainke talde durangarrak urtebete inguru eman du entsegu lokalean elkarregaz jotzera ohi-tzen, abesti berriak sortzen eta hauek grabatzen. Urrian, *10 gezur eta 3 tiro* lana kaleratu eta gero, hau zuzenean aurkezteko asmoagaz dago orain Gorka Cabellok, Victor Duranek, Imanol Erdoizak eta Igor Uruburu 'Lepotxo'-k osaturiko laukoteak. Hurrengo hitzordua zapatu honetan dute, Berrizko Hiltexgize gaztetxean. Durangoko Azokak aste honetan iragarri du Ahotsenea musika gunean ere egongo direla lan berria aurkezten.

Pozik diskoagaz?

Imanol Erdoiza: Uste baino gehiago luzatu da denboran kaleratzea, baina emaitzagaz oso pozik gaude. Azken urtean dozena bat kontzertu baino gutxiago eskaini ditugu, diskoa grabatzea eta entseatzeko lehenetsi ditugulako. Eta oso pozik gaude prozesu guztiagaz.



Victor Durán, Igor Uruburu, Imanol Erdoiza eta Gorka Cabello. STYLEX STUDIO

Igor Uruburu 'Lepotxo': Aurreproduktzioa lan guztia geure kabuz egin dugu, eta asko ikasi dugu. Gainera, oso gustu desberdinak ditugu eta hori igarri egiten da abestietan. Bakoitzak bere ideiak eraman ditu

lokalera, baina gero forma eman diegu bertan.

**Asko kostatu zaizue formato berri-
ra egokitzea?**

I. E.: Gorkaren beste proiektuaren (Garraio) garaian suertatu zen eta horrek erraztu du lana

banatzerakoan. Adibidez, 'Lepotxo'-k idatzi ditu letrak, eta sekulako ekarpena egin du, baina ez letrekin bakarrik.

I. U.: Apurka-apurka proposatzen hasi nintzen, eta rol hori hartu nuen, zeozelan esatearren. Letrak mimo handiz idatzita daude, eta istorio bat kontatzen dute, hasi eta amaitu. Esperientzia pertsonal bati lotuta hasi ginen lehenengo letra idazten, eta gero erabaki genuen hurrengo kantetako letrak ere horri lotzea; lapurreta eta ihesa idatzi genituen *Beretta* eta *Chevy baltza* abestietan. Horren ondoren, denok batu eta istorio osoa idatzi genuen.

I. E.: Guretzat ere nobedadea izan da horrela idaztea. Eta esango nuke inguruko taldeekin alderatuta ere horrela dela.

**Imanol Jareñogaz egin duzue berri-
ro grabazioa.**

I. E.: Beragaz grabatzea erabaki genuen, aurrekoan oso gustura egon ginelako. Meisonegaz egingako grabazioa erakutsi zigun eta soinua asko gustatu zitzaigun. Oso gustura geratu gara beragaz lan eginda.

I. U.: Berba onak baino ez ditugu. Bateria doinuak Berrizko Estoldetan grabatu genituen, eta gainerakoa gure lokalean. Abenduan hasi eta apirilean amaitu genuen, eta ez da erraza izan, agenda kontuengaitik.

Ainke soinura hurbiltzen zabilzate?

I. E.: Inoiz ere ez dugu jakin zer erantzun estiloari buruz galdetu digutenean. Lehenengo diskoa

ilunagoa eta astunagoa dela uste dut, eta bigarren hau ez dakit esaten. Entzun eta bakoitzak erabaki dezala.

I. U.: Victor metalzalea da, Gorka bere doinugintza bereziagaz, eta ni punkiagoa, bakoitzak bere ikutua ematen dio. Igarri dezakezu bakoitzak zer eman ahal izan duen, baina behin abestia borobilduta, denon ideiak ditu.

I. E.: Konposatzeko modua ere aldatu dugu urte honetan. Lehen esan dugun moduan, ideia lokalera eraman eta han landu dugu. Eta ez dugu beldurrik izan edozer probatzeko; gainera, ez diogu mugarik ipini geure buruari. Baditugu ideia berriak ere, eta gogotsu gaude horiek lantzeko. Ez da erraza elkarregaz entseatzeko geratzea, baina oso gogotsu gaude zuzenean jotzeko.

Landakon entseatzeko duzue, zelan laguntzen du horrek?

I. E.: Lokal barik talde bat ez da ezer. Edozeinek ez du lokal propio bat izateko erraztasuna, beraz, horrelako lokalak herri danetan egon beharko lirarteke. Hiruzpalau lokal desberdin eza-gutu ditugu hasi ginenetik, ordainpekoak, eta lokal barik ere egon gara sasoi batean.

"BADITUGU IDEA BERRIAK ERE, ETA GOGOTSU GAUDE HORIEK LANTZEKO"

Hilario Rodeirok hasiko du Arriolako Jazz Blues jaialdia

MUSIKA Arriolako XXXV. Jazz Blues jaialdiak bost kontzertu izango ditu; azaroaren 15ean izango da lehenengoa

A. M. ELORRIO

Ohikoa den moduan, azaroagaz batera Arriola Jazz Blues musika jaialdia heldu da. Azaroaren 15ean izango da lehenengo emanaldia, Hilario Rodeiro Quintet taldearen kontzertua. Jazz eta blues programazioan, esperientziarik handienetarikoa duen herrietariko bat da Elorrio; izan ere, estilo bi horiek uztartzen dituen Arriola Jazz Blues jaialdiak 35 edizio daramatza martxan. Neurri handi batean, musika mota horietaz gozatzen duen publiko fidelari eskerrak da.

Hilario Rodeiro galziarraren boskotea arduratuko da aurten-
go edizioari hasiera emateaz. Rodeiro Santiagon jaio zen, baina hamabost bat urte daramatza Donostian bizitzen. Denbora horretan, Gordon Lee, Sabine Kühlich, Chris Kase eta Bob Sands musikariek aritu da, besteak beste. Azken urteetan arte eszenikoetarako musikaren ekoizpenean murgildu da; hala ere, Rodeirok denbora izan du bere bakarkako lehenengo lana kaleratzeko. Boskotea osatu eta bere izenagaz bakarka egiten duen

lehenengo jazz diskoa kaleratu du aurten: *Pausa*. Emanaldia 20:00etan izango da, Ateneoan. Biharamunean, Enrico Crivellaro & The Italian All Stars taldea arituko da agertoki berean; AE-Betako musika tradizionalaren adar desberdinak ikutzen ditu bere emanaldietan.

Naco Goñiren La Blues Company eta Move Quartet taldeek ere emango dituzte kontzertuak, hurrengo asteetan. Durangaldeko ordezkari legez, Broken Salad kolektiboak egingo du emanaldia.

ARRIOLAKO XXXV. JAZZ BLUES JAIALDIAN BROKEN SALAD KOLEKTIBOAK PARTE HARTUKO DU



Hilario Rodeiro Quintet. DANI DOMINGUEZ

Ekitaldi bi Nemesio Bikandi zena omentzeko

MUSIKA Zapatuan, Nemesio Bikandi udal musika bandaren sortzailea omenduko dute; ekitaldi bi egingo dituzte; 11:45ean bandak emanaldia egingo du, Zelaieta parkeko kioskoan, eta 20:00etan 'Antzinako oroitzapenak' kontzertuaren txanda izango da

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Zornotzako Udalak Nemesio Bikandi udal musika bandaren sortzailea izan zena omenduko du zapatuan, hilak 9, bere izena daraman kalearen izendapenaren 70. urteurrenean. Ekitaldi bi egingo dituzte. Lehenengoa goizean egingo dute, 11:45ean; udal musika bandak emanaldia egingo du Zelaieta parkeko kioskoan, eta, ondoren, kalejiran joango dira Nemesio Bikandi kaleraino. Hain zuzen ere, 1954ko uztailaren 18an izendatu zuten kalea musikari zornotzarraren izenagaz. Egun hartan jo zituzten abesti bi berreskuratuko dituzte gaueko kontzerturako. "Zapatukoa kontzertu berezia izango da; besteak beste, garaiko bandako kideek parte hartuko dutelako. Horrez gainera, Nemesio Bikandi kalea izendatu zuten egunean egin zuten kontzertuko abesti bi berreskuratuko ditugu", azaldu du Aritz Labrador Zornotzako udal bandako zuzendariak.



Udaleko eta bandako ordezkariek eta senideak.

Bigarren emanaldia 20:00etan izango da, Zelaieta zentroan. Bestalde, Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak Bikandik egingo dako ekarpena azpimarratu du: "Nemesio Bikandik ekarpen garrantzitsua egin zuen gure herriko kulturaren garapenean,

eta bere ondarea bizirik dago gaur egun ere. Omenaldi honen bitartez, gure udalerrian musika alorrean egindako lan nekazina aitortu eta eskertu gura dugu, eta, aldi berean, etorkizuneko belaunaldientzat zabaldu zuten bidea eskertu".



Nøgen.

Abadiñoko Ostera festibalaren egitarau zabala aurkeztu dute

OSTERA 'Euskaran mundu oso bat kabitzen da!' lelopean, azaroan Abadiñon egingo dute Ostera kultur festibala

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Ostera kultur festibala Abadiñora helduko da, 'Euskaran mundu oso bat kabitzen da!' lelopean. Egitasmo ibiltari modura proiektatuta, aniztasunean eta aberastasun kulturean oinarrituriko etorkizuneko euskalduntasun berri bat irudikatu eta islatu gura du jaialdiak, antolatzaileen esanetan. Besteak beste, puntako hizlarien solasaldia, dantza bertikala eta Nøgen taldearen kontzertua egingo dira. Azaroaren 28an hasi, eta asteburu osoan iraungo du egitarauak. Hasteko, 'Nola sustatu kultur zaletasuna?'

solasaldia egingo dute Joseba Sarrionandiak, Eneko Sagardoyk, Leire Vargasek eta Onintza Enbeitak, Txanporta kultur etxean; biharamunean Geure(r)a dantza bertikal ikuskizuna egingo da, Traña-Matienako frontoian, eta 30ean Nøgen taldearen kontzertua, probalekuan. Jaialdia borobiltzeko, *Iratxoak eta basoko sorginkeria* emanaldia egingo da, Errotan, abenduaren 1ean. "Herriarrei bertaratzeko deia egiten diegu, baita euskaratik urrunago bizi diren horiei ere", azaldu du Andoni Urzelai Topaguneko kideak.



GAI LIBREAN

GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOKO ZUZENDARIA

Isilaraziak XXI

Urriaren 18an Bilboko Guggenheim museoan Hilma af Klint artistaren erakusketa inauguratu zuten. Azkenaldian Bilboko Museo honek hainbat emakume artisten lanak erakutsi ditu, hala nola Alice Neel, Lee Krasner edo Martha Jungwirth. Museoaren erakusketa programan aldaketa bat ikusi da azken urte hauetan, beraz, emakume artistei beraien lekua eskainiz.

Hilma af Klinten erakusketaren komisarioak Tracey R. Bashkoff eta Lucía Agirre izan dira, New Yorkeko eta Bilboko Guggenheim museoetako komisarioak, hurrenez hurren. Urte askotan egindako lanaren emaitza izan da, 2018an lehenengoz egin zuten Hilmaren erakusketa New Yorken, eta orain etxean ikusteko aukera dugu.

Hilma af Klint Stockholm-en (Suedia) jaio zen, 1862an. Familia aberats eta kultural baten parte izan zen. Honek erraztasuna eman zion Suediako Arteen Erret Akademian sartzeko, 18 urte zituela. Hau izan zen

emakumeak onartu zituen lehen eskola europarra. Hori bai, gizon eta emakumeen arteko desberdintasun nabariak ziren ikastaroetan. Garai horretan pintura tradizionala landu zuen, paisaiak eta erretratuak eta hiriko zirkulu kultural eta feministetan parte hartu zuen. Eskolako artistarik nabarmenarikoa bazen ere, emakume izateagatik, gizonetako baino zailtasun gehiago izan zituen. Hori dela eta, beste jakituria esparru batzuetara jo zuen: espiritismora, teosofia eta antroposofia zehazki; Estatu Batuetatik zetozen sinesmen alternatibo batzuk ziren, European

"KANDINSKYRENA BAINO LAU URTE LEHENAGO EGIN ZUEN BERE HILMA AF KLINTEK"

ezagun egin zirenak eta beste artista batzuk ere erakarri zituztenak, hala nola Kandinsky edo Mondrian. Hauei esker bere sentimenduak eta esperientziak (ahizpa gaztearen heriotza kasu) koloreen bitartez adierazten zituen, inongo figurarik gabe. Hau da, arte abstraktua egiten hasi zen. Artearen Historiako liburu guztietan arte abstraktuaren aita Wasily Kandinsky dela esaten badute ere (eta berak ere bere burua horrela definitu zuen) Kandinskyren lehen obra abstraktua (1910) baino 4 urte lehenago egin zuen berea Hilma af Klinter. Bere lanak garaiko pertsonetazko ulertezinak zirela argudiatuz, ez erakustea proposatu zitoten, eta berak horrela egin zuen; bere heriotza baino 20 urte geroago, ikusgai ez jartzea eskatu zuen. Hainbeste ezkutatu ziren, ezen 1986ra arte, hau da, heriotza baino 42 urte geroago arte, ez zirela berriz ikusi. Artearen Historia hankaz gora jarritz, arte abstraktuaren amari bere ahotsa emanez.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 8

ABADIÑO Bertso saio literarioa
Alaia Martin eta Igor Elortza. Ainhoa Urienek gidatutako saioa.
Isioturen lokalean, 20:00etan.

DURANGO Erakusketa
'Playground' (Xabi Gaztelu).
Arte eta Historia Museoan, hilaren 24ra arte.

DURANGO Bertsoak
Onitza Enbeita, Iruri Altzerreka eta Igor Galarza. Gai jartzaila: Erika Lagoma.
Otamotzena auzogunean, 19:00etan.

IURRETA Musikaldia
'Ekuanimity' (RS BAsque faktor).
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

ZORNOTZA Antzerkia
'Marmarka' (ATX Teatro).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZORNOTZA Jaiak
Igel txapelketa, 19:00etan.
Porurik Ez elektrotzaranga, 19:30ean.
Triki Punk erromeri taldea, 22:30ean.
Luis Urrengotxea kalean.

ZORNOTZA Erakusketa
'Nemesio Bikandi omenduz' eta
'Umeak artean' erakusketak.
Zelaieta zentroan, hilaren 10era arte.

ZORNOTZA Erakusketa
Francisco Escobarren lanak.
Ezkurdi aretoan, hilaren 17ra arte.

ZAPATUA 9

ABADIÑO Musika
Abadiño DJ Gaua: Dj Kool, Dj Kuku, Dj Gartz, Inshore eta Njo.
Isioturen lokalean.

ABADIÑO Urteurrena
San Prudentzio Elkartearen 40. urteurren ekitaldia.
Traña-Matienako Nagusien Egoitzan, 12:30etan.

ABADIÑO Urteurrena
De Norte a Sur taldearen 25. urteurren ekitaldia, probalekuan.
Afaría, 22:00etan, Traña-Matienako frontoian. Disko-festa, gauerdian.
Probalekuan, 18:30etan.

ABADIÑO Antzerkiño
'Escándalo's Club' (Escuela de Teatro Taboadela).
Errota kultur etxean, 19:00etan.

BERRIZ Antzerkia
'Menina. Soy una puta obra de Velazquez' (L' Horta Teatre)
Kultur Etxean, 19:00etan.

DURANGO Dantza
'Nahasteborraste' (Ina Danza).
San Agustín kulturugunean, 18:00etan.

IURRETA Irteera
Elgetara bizikleta irteera. lurreta Txirrindulari Elkarte.
lurretan, 09:00etan.

ZORNOTZA Musika
'Antzinako oroitzapenak' (Zornotzako Musika Banda).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZORNOTZA Jaiak
Umeentzako jolasak, 11:00etan.
Zornotzako Erraldoiak, 11:00etan.
Udabarri dantza taldea, 12:00etan.
Sukalkiaren aurkezpena, 14:30ean.
Taberna ibiltaria, 18:00etan.
Barrena + Tributo a Barricada + Parabellum, 21:30ean, Zelaietan.
Luis Urrengotxea kalean.

DOMEKA 10

ABADIÑO Antzerkiño
'75 Puñaladas' (Txintxaun Kolektiboa).
Errota kultur etxean, 19:00etan.

ABADIÑO Musika
Pelax.
Amarau Arte Fabrikan, 12:30etan.

DURANGO Antzerkia
'Postdatarik gabeko egunak' (Xake).
San Agustín kulturugunean, 19:00etan.



HISTRION TEATRO.

ELORRIO Antzerkia
Espainian lehenengoz, emakume batek alkate bat akusatuen aulkira eraman zuen sexu jazarpenagaitik. Horixe du ardatz Histrion Teatrotan *Nevenka* lanak.
Azaroaren 8an, barikua, Arriola antzokian, 20:00etan.

GARAI Ibilaldia
Ibilaldia herri inguruko basoetatik.
Plazan, 10:30ean.

IURRETA Irteera
Ugaora bizikleta irteera. lurreta Txirrindulari Elkarte.
lurretan, 09:00etan.

ZORNOTZA Jaiak
Soinutxikie-ko trikitalariak, 12:00etan, tabernetatik.
Herri kirolak, 12:30etan.
Lutaber Berri errifa, 15:00etan.
Luis Urrengotxea kalean.

EGUENA 14

BERRIZ Tailerra
'Heriotzaren pedagogia familian (Hizlaria: Manex Beristain). Heldu bat eta ume bat (LH3tik aurrera), 35 euro (ikastaroakumerri@gmail.com).
Umerrin, 17:00etatik 19:00etara.

ZORNOTZA Musika
Xime Monzon Band.
Zelaieta zentroan, 20:00etan.

BARIKUA 15

BERRIZ Antzerkia
'Onin eta antzerkiaren misterioa' (Tediferencia).
Kultur Etxean, 17:00etan.

DURANGO Dokumentala
'Naturaren sekretua' (Zuz: Jose Antonio Perez Ledo). Ondoren, Pedro Miguel Etxenikegaz solasaldia, Anboto astekariko Jone Guenetxea zuzendariak gidatuta.
San Agustín kulturugunean, 18:30ean.

ELORRIO Jazz Blues Jaialdia
Hilario Rodeiro Quintet.
Ateneoan, 20:00etan.

IURRETA Musikaldia
Moon Fields Trio.
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

ZAPATUA 16

ABADIÑO Antzerkiño
'Psicoterapia' (La TEAdeTro).
Errota kultur etxean, 19:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEAN

Robot salvaje
domeka 10: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Marco
barikua 8: 18:00, 20:30.
zapateria 9: 19:15, 21:30.
domeka 10: 19:30.
astelehena 11: 18:00, 20:15.
martitzena 12: 18:00, 20:15.
eguzatena 13: 19:00.

Verano en diciembre
barikua 8: 18:00, 20:30.
zapateria 9: 19:15, 21:30.
domeka 10: 19:30.
astelehena 11: 18:00, 20:15.
martitzena 12: 18:00, 20:15.
eguzatena 13: 19:00.

Amanece en Samaná
barikua 8: 18:00, 20:30.
zapateria 9: 17:00, 19:15, 21:30.
domeka 10: 17:00, 19:30.
astelehena 11: 18:00, 20:15.
martitzena 12: 18:00, 20:15.
eguzatena 13: 19:00.

Guardianes en la ópera
zapateria 9: 17:00.
domeka 10: 17:00.

Dalia y el libro rojo
zapateria 9: 17:00.
domeka 10: 17:00.

La Bohème (opera)
eguzatena 13: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIAN

Crossing
zapateria 9: 20:00.
domeka 10: 20:00.
astelehena 11: 20:00.

Dragoi-jagolea
domeka 10: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Soy Nevenka
domeka 10: 20:00.
astelehena 11: 20:15.

Rescate en África
zapateria 10: 17:00.

Club Zero (JBGA)
martitzena 12: 20:15.

DURANGO Bonus Track Jaialdia
El Drogas, Sociedad Alkoholika, Su ta Gar, Tropa do Carallo, Boikot, Kaos Urbano, Josetxu Piperrak, Manifa, Tremenda Jauria, The Lio, Nafarroa 1512 eta Neskatasuna.
Landako Gunean, egun osoan.

DURANGO Musika Hamabostaldia
Spanish Brass metal boskotea.
San Agustín kulturugunean, 19:00etan.

ELORRIO Jazz Blues Jaialdia
Enrico Crivellaro & Italian All Stars.
Ateneoan, 22:00etan.

"Zerotik hasi behar dela esan diet jokalariei"

FUTBOLA Julen Guerrero kargutik kendu eta astebetara, Amorebieta futbol taldeko entrenatzaile berria aurkeztu dute: Jose Ignacio 'Natxo' Gonzalez. Bere ibilbidean, Bigarren Mailarako iguera bi lortu ditu, Alaves eta Reus Deportivo taldeekin

Joseba Derteano ZORNOTZA

Amorebieta futbol taldea sailkapenaren zulotik ateratzeko erronkari helduko dion entrenatzailea aurkeztu dute, asteon, klubeko arduradunek. Jose Ignacio 'Natxo' Gonzalez da bera, entrenatzen esperientzia zabala duen gasteiztarra. Bere lorpenen artean, Bigarren Mailarako iguera bi nabarmentzen dira, Deportivo Alavesen eta CF Reus Deportivoaren gidaritzapean lorturikoak. Gainera, etapa bi egin ditu kanpoko ligetan, Portugalgo CD Tondela eta Boliviako Club Bolivar taldeetan aritutakoa da.

"Ilusioz" hartu duen erronka da eta badaki taldearen arlo animikoa landu beharko duela, beste ezeren aurretik. "Horrelako momentuetan, emozioek errendimenduan eragiten dute. Zerotik hasi behar dugula esan diet jokalariei. Hortik hasiko gara animoa altxatzen", adierazi zuen eguazteneko prentsaurrekoan.



Natxo Gonzalez eguazteneko aurkezpenean, Urritxe zelaietan.

Jokamoldeari dagokionez, da generara egokituko da. "Une honetan, gure obsesioa blokean eta batera mugitzea da, aurrerantz zein atzerantz. Gol gehiegi hartzen dugula diote datuek. Beraz, horixe da behinena", esan zuen.

Estreinaldi gatxa

Gonzalezaren estreinaldia ez da edozelakoa izango. Domeka eguerdian, talde urdinak Lehen Federazio Mailako bigarren sailkatua den Arenteiro taldearen zelaietan jokatu du.



Mikel Lopetegi 'Urria', harri txiki batekin lanean. EHKF

Abadiñon erabakiko dira Euskadiko harri jasotze txapelak

HARRI-JASOTZEA Abadiñoko probalekuak gizonen eta emakumeen txapelketa bana hartuko ditu hilaren 16an

J.D. ABADIÑO

Abadiñoko probalekuak harri-jasotze txapelketa bi hartuko ditu azaroaren 16an, 18:00etan: harri txikien txapelketa gizonetan eta kintopekoa emakumeetan.

Gizonetan Jon Gisasola mallabitarra arituko da, beste bost lehiakidegatz batera: Oscar Aguas eta Paulo Azpiazu nafarrekin, eta Xabat Olaizola, Mikel Lopetegi 'Urria' eta Iratiz Arruti gipuzkoarrekin. Denek lau harri jaso beharko dituzte: 100 kiloko bola, 112,5 kiloko kubikoa, 125 kiloko zilindroa eta 125 kiloko errektangularra. Lopetegi da

irabazteko favorito nagusia, azken sei urteetako txapelduna, eta bere atzetik, Azpiazu. Horiak biak "mailatxo bat gorago" daukela uste du Gisasolak eta hirugarren postua du helburu.

Emakumeetan lau kintopeko arituko dira; hau da, 21 urtez azpikoak dira denak. Euretariako bat Goizeder Abendibar mallabitarra da. Beragatz batera, Udane Ostolaza, Maddi Guesalaga eta Olaia Esnaola gipuzkoarrak arituko dira. 50 kiloko harri bigaz lan egingo dute. Guesalaga eta Esnaola dira irabazteko hautagai nagusiak.

DRTk Movember mugimenduko galtzerdiak atera ditu aurten

ELKARTASUNA DRTren tabernan eta Saltsanen eskuratu daitezke; Andra Marian ere egongo dira, hiru zapatutan

Joseba Derteano DURANGO

Durango Rugby Taldeak bat egin du aurten ere Movember-egaz, gizartea prostata eta barrabile-tako minbiziaren arriskuez kontzientziatzea helburu duen mugimenduagaz.

Movember-en logoa duen produkturen bat kaleratzen dute urtero, eta baturiko diru gutzia izen bereko fundaziora bidaltzen dute. Aurten galtzerdiak atera dituzte, iazko moduan. DRTren tabernan eta Saltsan dendan eskuratu daitezke, 10 eurotan. Horrez gainera, Andra Maria

inguruan postu bat ipiniko dute datozen hiru zapatuetan: azaroaren 9an, 16an eta 23an. Iazko kanpainako salmentagaz 1.295 euro lortu zituzten.

Kanpaina jai bategaz amaituko dute. Azaroko azken asteburu

**AZAROAREN 9AN,
16AN ETA 23AN
GALTZERDIEN POSTU
BAT IPINIKO DUTE
ANDRA MARIAN**

rurako askotariko ekintzak antolatu dituzte: pintxopotea, photocall-a, zozketak, musika emanaldiak...

Bibotea uzteko deia

Durango Rugby Taldeak Movember mugimenduagaz bat egitera animatu ditu herritarrak. "Zelan? Bibotea utzita, argazkiak aterata eta sare sozialetan denekin partekatuta", adierazi dute, ekimenari ikusgaitasuna emateak duen garrantzia azpimarratuta. Horrez gainera, mugimenduko kide egitera deitu dute, www.movember.com web orrian izena emanda. Iaz 83 milioi euro lortu ziren mundu osoan zehar egindako ekarpenei eskerrak. Diru hori ikerketarako eta sentsibilizazio kanpainetarako erabiltzen dute, besteak beste.



DRTko gizonen taldea ligako partidu batean. PEDRO MORENO

Berrizko ziklo-krosa lehian, azaroren 17an

ZIKLO-KROSA Berrizko Ziklo-Kros Sari Nagusiak 250 bat txirrindulari batuko ditu Berrizburu inguruko zirkuituan. Elorrioko eta Zornotzako probak irabazi ostean, Ainara Elbusto eta Aitor Hernandez eskualdeko hirugarrena ere irabazten ahaleginduko dira

Joseba Derteano BERRIZ

Berriz Bizikletari elkarteak 2011n berreskuraturiko ziklo-krosak 13. aldia beteko du azaroaren 17ko domekan, Berrizburu inguruko zirkuituan. Mailarik maila 250 bat txirrindulari batzea espero dute antolatzaileek.

Berrizkoa Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren egutegiaren barruko bigarren proba izango da. Horregaitik, euskal txirrindularirik onenetarikoak batzea itxaroten dute. Openean Aitor Hernandez ermuarra da faborito mutiletan, eta Ainara Elbusto nafarra nesketan. Eskualdean hiru ziklo-kros proba izango dira aurten; aurreko biak eurek irabazi dituzte —Elorrion eta Zornotzan— eta hirugarrena ere irabazten ahaleginduko dira.

Lehenengo lasterketa Master 40, 50 eta 60 mailakoa izango da, 10:00etan. 11:00etan, kadete kategoriakoa hasiko da. Emakumeen eta gizonen openak 12:00etan eta 13:00etan dira, hurrenez hurren.



Lasterketa Berrizburun izango da.

Umeen ginkana zapatuan

Lasterketaren egunean ez da Txiki Koparik egongo, aurreko aldietan legez. Eskari handiari erantzuteko, Bizkaiko Federazioak beste herri batzuetara eramango du aurten umeei zuzenduriko

ekimena. Baina umeek izango dute ziklo-krosa praktikatzeko aukera Berrizen. Bezperan, azaroak 16, Durangaldeko Bizikleta Eskolak umeei zuzendutako ginkana bat egingo du, 15:30etik eta 17:30era Berrizen.



Eguenetako jardunaldiak 21:00etan hasten dira.

Azaroaren 14tik aurrera, Olazarren zuzenekoekin hasiko dira

PILOTA Zuzeneko emankizunak final-laurdenekin batera hasiko dituzte eta 'anboto.org'-n jarraitu ahal izango dira

J.D. ZALDIBAR

Datorren asteko egunean, azaroak 14, final-laurdenak hasiko dituzte Zaldibarko Olazar pilota txapelketan, eta, horregaz batera, antolatzaileak zuzeneko emankizunekin hasiko dira. Saioek kalitatezko errealizazioa izango dute, hainbat kameragaz. Haritz Gallastegi kazetaria arituko da esatari —ezin duenean, Koldo Aldalur etorriko da— eta Enrike Agirrebeitia komentaria. Emankizunak Zaldibarko Udaleko Youtube orrian botako dituzte eta *anboto.org* atarian ere jarraitu

ahal izango dira, zuzen-zuzenean, 21:00etan hasita.

Partiduak

Lau eta erdian, O. Etxeberriak eta Uriartek neurtuko dituzte indarrak datorren egunean. Etxeberria oiartzuarra da faborito, iazko txapelkunordea. Binaka, Fernandez eta Loza Iker eta Unai Amianoren kontra arituko dira. Carmelo Lozak eta Unai Amianok elkarregaz 22 urtez azpiko munduko txapelketa irabazi zuten abuztuan. Zaldibarren elkarren kontra arituko dira.



JOKALDIA

KARMELE GISASOLA ZENIKAZELAIA HERRI KIROLAK

Erosotasuna

Duela hilabete batzuk, Euskadi Irratitik deitu zidaten Donostiako Miramonen egin nahi zituzten elkarrizketa batzuetan parte hartu nahi nuen galdezka. Elkarrizketa hori grabatua eta sare sozialetan jartzekoa izango zela komentatu zidaten, eta Olatz Arrizabalaga pilotari gernikarrarekin batera izango zela. Esandako egun eta orduan elkartu ginen bertan; Miramongo gela batean sartu gintuzten, mikroak jarri eta galderak gure artean izango zirela esan ziguten. Hau da, Olatzek eta biok inprobisatu egin behar genuen.

Ez genuen elkar ezagutzen, baina konturatu ginen hainbat gauza genituela amankomunean. Elkarrizketa galderak egin eta erantzuten genbiltzan bitartean, galdetu nion ea pilotari aritzeko derrigorrezkoak ziren praka zuriak janztea. Berak baietz erantzun zidan, derrigorrezkoa zela. Prakak egiten zituzten enprekin elkarlanean zebiltzala praka erosoagoak egiteko, baina zuriak izan behar zutelak. Beraien legediak

horrela omen dio. Eta horrek pixka bat "harritu" ninduen. Aizkoran aritzen garenok, eskerrak ez dugun praka zuriak janzteko derrigortasunik, eta hori eskertzekoa da.

Ohitu gara frontoian, kantxan, plazan dabiltzan hainbat kirolari gizonezko praka zuriekin ikustera (bai pilotari, zestalari, aizkolari, futbolari,...). Eta ez

"ZURIAK BADU ELEGANTZIA, BAINA ZIKINA DA. ETA HORREK EMAKUMEZKO ASKORI BELDURRA EMATEN DIGU"

dut esaten gaizki dagoenik, bere elegantzia baitu (imajinatu bestela buruz-buruzko pilota partida bat pilotariak maila beltzekin). Zuriak badu elegantzia, baina zikina da. Eta horrek emakumezko askori beldurra ematen digu. Zergatik? Hilero, emakumezko hilerokoa baitaukagu eta ez dakigu zenbat zikin gennitza gure prakak.

Behin plazara, frontoira, zelaira irtendakoan, ezin gara gure prakak noiz zikindu daitezkeen pentsatzen egon, kirolean kontzentratuta baizik. Uste dut erosotasuna bilatzea ezinbestekoa dela eta horri buruz ere hitz egin eta eskaerak egin behar direla. Begira Realeko nesken kasua: bertako neskek ere beldur ziren beraien uniformeko praka motz zuriak zenbat zikin zitzaketan, eta egindako eskaerei kasu egin die beraien taldeak. Hori dela eta, prakak erdi-erdian urdinezko franja bat jarri diete, disimulatu eta erosoago ibil daitezten.

GUARDIAKO BOTIKAK

AZAROAK 8 BARIKUA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**AZAROAK 9, ZAPATUA**

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**AZAROAK 10, DOMEKA**

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

AZAROAK 11, ASTELEHENA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza**AZAROAK 12, MARTITZENA**

09:00-09:00

Irigoiñ, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza**AZAROAK 13, EGUAZTENA**

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza**AZAROAK 14, EGUENA**

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK

**June**

Azaroak 5. Azaroaren 5ean Athleticeko jarraitzaileak sutsuenak urteak egin ditu. Zorionak, txapelidun!

**EIBAR****Lorea**

Azaroaren 10ean, 7 urte. Gure Loreak 7 urte egingo ditu azaroaren 10ean. Zorionak, printzesa, etxeko danon partez!

**ABADIÑO****Jon**

Zorionak zure kuadrillakuen partez!

**Ibone Urien**

Azaroaren 12an, 7 urte. Martitzenien etxeko poxpolinak 7 urte egingo dauz. Zorionak, Pirru, danon partez!

GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zorionak Pili Madariaga (996.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurra* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa


Mezua bidali *zorionagurra@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaitzez Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

EUSKAL HERRIA



GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

BERRIZKO AGENDA KULTURALA



Menina. Soy una puta obra de Velázquez Azaroak 9, 19:00
TDIFERENCIA - Familia Antzerkia Azaroak 15, 17:00
Ibil Bedi "Goldea" - Kontzertua 360º Azaroak 23, 19:00
Miñan Azaroak 30, 19:00




Programazio guztia



Oraindik ez zara ANBOTOk whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu **Anbotoko whatsapp** kanalera



**Eskaneatu
QR kodea:**



* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak



LAU-HORTZA

MERTXE MUGIKA
BALANZATEGI

Kamala ala Trump?

Dagoeneko argituta dago azken hilabete hauetako misterio handiena: nork gidatuko gaitu hurrengo lau urteetan? Kamalala Donald? Nork ez ditu jarraitu Estatu Batuetako hauteskundeak? Izan ere, saihestezina izan da muzin egitea itsasoaren beste aldean gertatzen zebilenari. Ikusi besterik ez dago hauteskunde amerikarren jarraipena egiteko EITBk jarritako baliabideak: albistegietako buruak zuzenean bertatik bertara informatzen, tertuliakide guztiak iritzia ematen, porrak egiten... Nik, behintzat, komunikabideek behartuta jakin izan dut zeintzuk diren alderdi bakoitzaren lerroburu nagusiak. Eta onartu behar dut, zenbaitetan, aho bete hortz geratu naizela agure zuri batek botatako gezurrekin, irainekin eta purrustadekin. Ez naiz ausartu baten edo bestearen alde egiten, baina aitortu behar dut gertuago egon naizela Kamalarengandik. Zergatik? Bada, Etxe Zurian ikusiko genukeen lehen emakumea izango litzatekeelako; kanpainan beste tonu bat erabili duelako eta, asko sinesten ez badiot ere, giza-eskubideen alde egin duelako. Eta, horren guztiaren gainera, balitekeelako Trumpen aginte-makilaren dantzak inork igarri ezin duen musikarekin aritzeko bidea moztuko lukeelako. Tamalez, burutik sano ez dagoen agure baten esku geratu da munduaren etorkizuna.

AKUILUA



"Grezia alternatiboa iruditu zait, asko harritu nau"

ANE ARBULU DUDAGOITIA EKONOMIALARIA

Ekonomiako gradu amaierako lana amaitu ondoren, Ane Arbuluk (Durango, 2000) sei hilabete egin ditu Grezian, Merkataritza Ganbera Hispano-greziarrean lanean

A. Basauri DURANGO

Urtarrilean, Ane Arbulu Greziara joan zen, Alacanteko Unibertsitateko Erasmus-Aitana bekagaz. Uztailean bitartean Atenasen egon zen, bizitzen eta lanean.

Zein arlotan lan egin duzu?

Merkataritza Ganbera Hispano-greziarra oso txikia da, eta, beraz, ekonomiagaz loturiko gaietaz haratago hainbat arlotan aritu naiz. Konferentziatara joateko aukera izan nuen, adi-

bidez. Espainiara zabaltzeko asmoa izan zezaketen enprekin —edo alderantziz— lan egiten genuen. Eta ganberako bazkideen kontuak ere eraman ditut. Espainiako enbaxadagaz ere lan handia egin dugu, ekitaldiak antolatzen.

Zelako esperientzia izan da?

Beste kultura bat ezagutzeko aukera izan dut, oso desberdina. Gainera, nire lanak bestela hurbilduko ez nintzen eremuan aritzeko aukera eman dit. Mai-

la handiko enpresariak eta politikariak ezagutu ditut; batez ere, Espainiakoak eta Greziakoak, baina beste herrialde batzuetakoak ere bai.

Zergatik Grezia?

Herrialdeak erakarri egiten ninduen, baina eskaini didaten lanagaitik joan naiz batez ere. Interes handia nuen Ganberan lan egiteko; horregaz lotuta jarraitu gura ditut ikasketak.

Oso desberdinak dira Grezia eta Euskal Herria?

Ez nuen pentsatzen, baina, bai. Atenas gauza bat da, eta beste gauza bat herrialdea bere osotasunean. Gizartea apur bat atzeratuago dagoela iruditu zait, bizitako krisi ekonomikotik ez direla guztiz berreskuratu. Eta erlijioak pisu handia du. Bizi dituzten gatazkak ez dira guregana heltzen. Adibidez, ikasleek hainbat protesta egin zuten eta unibertsitateak itxita egon ziren hainbat hilabetean. Grezia aipatzean iriak datozkigu gogora, baina irlek ez dute zerikusirik Atenasagaz, adibidez. Atenas apur bat iluna iruditu zait.

Zerk harritu zaitu gehien?

Sentsazio desberdinak sortarazi dizkit. Bizitza handia dago kalean, eta oso alternatiboa iruditu zait. Horrek asko harritu nau eta horixe gustatu zait gehien. Bestalde, iriak eta penintsulako iparraldea oso desberdinak dira. Iparraldea oso menditsua da. Herrialdea oso anitza da.

Zelan moldatu zara greziarrekin?

Oso ondo! Beti daude laguntzeko prest, eta eskuzabalak dira.

Greziar berba egitean errefuxiatuen kanpamenduak datozkigu gogora.

Bai. Errefuxiatu asko dago eta egoera gogorra bizi dute.

Greziako leku bat?

Zakintos irla. Irla mordoia dago eta famatuena oso esplotatuta daude turismo aldetik. Ezezagunenak gustatu zaizkit gehien.

"MAILA HANDIKO ENPRESARI ETA POLITIKARIAK EZAGUTU DITUT"



HEGAN RENT

Goitondo behekoa industrialdea, 1-1 partzela
48269 Mallabia (Bizkaia)
Tel.: 943 171 362



administracion@alkideba.net · www.alkideba.net

Furgoneta alokairu
zerbitzu berria!

